


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Agian arteak du erantzuna



Amaia Alvarez Uria



Eromekanika. Makineria sozialaren erotika

SAIOA OLMO

Ideatomics, 2016

A: Beti izango dugu kartzela.

B: O bai, kaiola, barra zuzenak, gogorrek zorrotzak (...). Presondegia, legearen pisu guztia nire gainean izateko presioak baretzen nau, azpiratu (...) nola gelditu bere egiten nauen indar eztanda hau?

A: Kontrolpean dut, gelaren giltza daukat.

B: Banekien zutaz fida nintekeela. Hasieratik sumatu dut koskorra zure galtzetan. Poltsikoan duzu, bero, zure azalaren kontra. Badakit une honetan eskuaz igurzten ari zarela (...) zer egingo duzu horrekin?

A: Sarrailan sartuko dut.

B: Ez, oraindik ez, itxaron, utzidazu lehenengo ikusten. Esan, (...) zure giltzak, zer botere ematen dizu?

A: Eskoletako, erietxeetako, elizetako, banketxeetako, epaitegietako, legebiltzarreko atek zabaltzen ditu.

Elkarrizketa horrekin hasten da *Eromekanika. Makineria sozialaren erotika* liburua. Saioa Olmoren proiektuak, EPLC (*Espacio Para Los Cuerpos*) taldearen performanceek, eta Xabier Erkizia, Idoia Zabaleta, Diego del Pozo, Agurtzane Ormatza, Ainhoa Güemes, Nestor Makhno eta Javier de Riveraren testuek osatzen dute. Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratu dute eta euskarazko itzulpenean findu beharreko pasarteak daukela esan behar da.

Eromekanika kontzeptua azaltzeko hiru osagai aipatu behar ditugu: 1) Egitura sozialak. 2) Boterearen dispositibo diziplinar eta errepresiboak. 3) Harremanak, desira eta libidoa. Proiektu honen sorrera Deustuko zubia-errietan dago eta inguruan izandako

elkarrizketa batzuetan. Elkarrizketok joko eta fantasia sexualak egoera sozial ugartan kokatu eta engranaje mekanikoetan martxan irudikatu zituzten.

Eskolan, ateneo libertarioan, elizan eta sarean egindako performanceetan erabilitako elkarrizketak, kartelak eta argazkiak jasotzen dira liburuaren hasieran eta amaieran, eta erdigunean argazki-muntaiak eta testuak daude (eremu desberdinetako jendeak gaiaren inguruan egindako gogoetak). Liburua bera fetitxetzat har daiteke, bere tamaina, kolore eta testuragatik; ia-ia eskuartearen kabitzen da, goxoki edo bonboi baten zorroaren kolorea du eta azala ukitzeraoan erliebean senti daiteke proiektu honetarako sortutako ikonoa: infinituaren sinboloaren katean sexu-organoetatik engranajeko hagin eta pernoetaraino doan ondo koipeztatutako mekanismoa.

Ideatomics ekimenak beste proiektu batekin eman dio jarraipena *Eromekanika: Teknologia Bigunak*, epilogoan ikusten den bezala: "Kartzela beti egongo da han, ez badugu desmuntatzen lagunduko diguten zenbait teknologia bigun garatzen". Irakurtzen-ezagutzen jarraitzeko. ■



Saioa Olmo
artista bilbotarra.